

5. MAHASGINTZA ETA ENOLOGIA BOLETINA / 2022ko ABUZTUA
IZURRITE ETA GAIXOTASUNAK

- **Internet bidezko asteroko oharrak :**
http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=5505&Idioma=EU
 - **Erantzungailu automatikoaren bidezko asteroko oharrak (Maiatzaren lehen astetik aurrera): 94-4066879**
 - **Mahasgintza eta enologia boletina.**
 - **SMS mezuak egoera berezietarako (gorrinaren lehen mailako infekzioa, lehen orbanaren topaketa, txingorra...).**
- EDOZEIN KONTSULTARAKO DEITU DERIOKO LANDARE BABESERAKO ZENTRURA: 94-4541009**

Abuztuak 9an

GORRINA: aurten ta orokorrean gorrinak sortutako kalteak ez dira larriak izan. Hasiera batean, maiatzean infekzioak izan ziren, batez ere hostoan, baina handik aurrera onddoa nahiko ondo kontrolatu da. Gogoratu mahats-mordoak nabardura arte sentikorrek direla, nahiz eta, jada, mahasti osasuntsuetan ez diran aparteko kalterik izango.

Kontrola: mordoan nabardura hasi arte 2022ko Tratamendu Gidako **M2 taldeko** fungizida sarkorrak erabiltzea gomendatzen da. **Mordoak heltzen hasten direnetik aurrera (nabardura) ez dira sentikorrek gaixotasunarekiko, beraz sasoi honetatik aurrera kobrea daramaten M3 taldeko ukipen fungizidak erabiltzea gomendatzen da.**

Landarearen organoak ondo busti beharko dira makineria egokia eta ondo kalibratua erabiliz. Bestalde, oso garrantzitsua da praktika kultural egokiak egitea (kimuak kendu, desnieteak, belar mozketak...) landareen inguruan hezetasun altuko kondizioak ekiditeko.

OIDIOA/ ZURINA: orokorrean aurten zurinaren eragina be ez da handia izan eta hemetik aurrera mahasti osasuntsuetan ez dira kalte nabarmenak espero. Behar izan ezker 2022ko Tratamendu Gidako **O taldeko oidioaren kontrako fungizidak erabili.**

Gorrinaren kasuan lez, mordoak heltzen hasten direnetik aurrera (nabardura), ez dira sentikorrek gaixotasunarekiko, beraz, sasoi honetatik aurrera zurinaren kontrako tratamenduak ez dira beharrezkoak.

BOTRITISA: mordoak heltzen hasten danetik aurrera (nabardura), arriskua gora egiten dau batez be euria edota hezetasun altuko kondizioak badira. Erabili 2022ko Tratamendu Gidako **B taldeko botritisaren kontrako fungizidak** gai aktibo ezberdinak tartekatuz.

EGURREKO ONDDOAK: sasoi honetan landare askok gaixotasun honen sintomak agertu dabez. Kasu hauetan galdutako landareak kendu eta atera landaketatik eta markatu sintomak dekietzenak neguan tratateko.

MORDOAREN SITSIA: Gure mahastietan ez da arazo handirik insekto honegaz, horregatik gomendatzen da tratamendua egitea, larbak mordoetan ikusten badira bakarrik.

AKAROAK: Landaketetan ikusten dira puntualki, baina momentuz kalte handi egin barik. Adi egon eta aztertu tolerantzia-mailan mantentzen diren.

LANDAKETA LANAK. Bedarra sarri ebagiteaz aparte, mordo inguruan dagozan hostoak kendu baina kontuz, kontutan izanda eguzki kolpeak mordoetan sortu leiken kaltea.

HOSTOEN ANALISIAK:

Muestrak erodateko data: abuztuak 29tik irailak 2 arte.

Lekua: Neiker Derio

Orduetgia: 8,30-14.00

Prezioa analisiko Bialtxa: 46,38 € + BEZ

Prezioa analisiko (bazkidea ez dana) : 66.25 € + BEZ



- Peziolodun hostoa.

- 3-garren hostoa lehen mordotik gora.

- Bildu 30-60 hosto muestra eta bariedade bakoitzeko.

Landare bakoitzeko hosto bat hartu.